

SOZILINGUISTIKAREN INGURUAN

>>>

5

HIZKUNTZA-MENDEBASUNA AZTERTZEKO ETA EGOERA HORRETAN ESKU HARTZEKO EREDU BAT

Ferran Suay i Lerma

Psikobiologia departamentua. Valentziako Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: ferran@suay.cat

Gemma Sanginés Sáiz

Kirol-psikologiaren bulegoa. Valentziako Unibertsitatea

1. SARRERA

Hizkuntza ofizial bat baino gehiago duten komunitateetan, legeen bidez arautzen eta zigortzen da erabilera Maila teorikoan bai, gutxienez Baina, legeetatik haratago, badaude zenbait faktore herritarrei, hainbat gizarte-testuingurutan, hizkuntza baten edo bestearen alde eginarazteko Hizkuntza bat hizkuntza hori ezagutzen dutenekin komunikatzeko tresna da, jakina. Baina hizkuntzaren ezaugarri nagusia horixe den arren, hizkuntza bat ez da tresna soila, jendeak bere nortasuna adierazteko erabiltzen duen funtsezko moduetako bat ere bai baita (Adell 2003).

Horrela, bada, egun espainiar Estatuan dauden euskal lurraldeetan, hiztun guztiei "euskaraz hitz egiteko" eskubidea onartzen zaien arren, legeetan ez da hizkuntza hori ezagutzeko betebeharra jasotzen. Beraz, eskubide hori baliatzeko aukera mugatu egiten da solaskideak ez badu hizkuntza hori ezagutzen, eta horrek pertsonen arteko hizkuntza-gatazka moduan izenda dezakegun egoera-multzoa eragiten du. Hiztunek eskura dituzten baliabideak erabiliko dituzte egoera horiei aurre egiteko, eta euskaraz edo gaztelaniaz hitz egitea aukeratuko dute, hainbat aldagairen arabera.

Guk bi helburu ditugu. Alde batetik, hizkuntza aukeratzeko (bata ala bestea aukeratzeko) jokabidea aztertu nahi dugu, ikuspegi psikologikotik. Horretarako, jokabide hori funtsezko zer aldagaik gidatzen duten identifikatu behar da; hau da, zer aldagaik baldintzatzen duten hizkuntza bat ala bestea aukeratzeko probabilitatea. Bestetik, gatazka-egoera horiei aurre egiteko pertsona arteko baliabideak garatzeko esku hartze eredu bat proposatzea da gure helburua, betiere hizkuntza gutxituko hiztunen ikuspegitik.

Kontuan izan behar da euskal kulturaren gutxitze sistematikoak zuzenean eragiten diola norbanakoaren ongizateari (azterketaren maila psikologikoan), oinarrizko behar bati eraso egiten baitio; nortasunaren definizioari, hain zuzen. Pertsonen inguruneekin dituzten harremanetan (familia, harreman-taldeak, identifikazio- eta erreferentzia-taldeak, etab.) oinarriz erakitzen dute nortasuna. Norbanakoa mugitzen den ingurunean, bere kolektibitatearen ezaugarri bereizleek (hizkuntza, adibidez) begirune gutxi jasotzen badute sistematikoki, edo baztertu egiten badira, norbanakoa ezaugarri horiek baztertzerantz behartuta sentitzen da, eta horrek egonezina eragiten dio —ezin da justifikatu—. Onartzen badugu hizkuntza, komunikazio-bitartekoa ez ezik, nortasun-adierazlea ere badela (Marí, 1996; Adell 2003) eta autoestimua maila egokia lortzeko, besteak beste, gure nortasunaren berri eman eta inolako konplexurik gabe agertzeko beharra dugula, nortasun-adierazpen hori etengabe baztertzeko eta kontra jartzeko bada, beste hizkuntza baten faboretan (eta, horrenbeste, beste nortasun baten faboretan), oso zaila da, ezinezkoa ez bada, autoestimuari eustea. Fenomeno hori bikain aztertu du, Kataluniako gizarteari erreparatuz, Victor Alexandrek (Alexandre 2003).

Urteak dira komunikatzeko norbere hizkuntza erabili ordez gaztelania erabiltzea ezinbestekoa dela euskal gizartean mailaz igotzeko. Ikuspegi ofizialak (beti horrela garbi adierazten ez den arren) lehenengo mailako hizkuntzat hartzen du gaztelania, edozein erabilerarako baliagarritzat, hasi erregistro arruntenetik eta jasoetaraino arte; euskara, berriz, erregistro arruntetan eta familian soilik izango litzateke erabilgarria (diglosia). Ideia hori, gainera, nabarmen sendotu da hainbat modutan. Horren adibide ditugu frankismo-garaiko ageriko debekua (baita askoz lehenagoko garaietakoa ere) eta hizkuntzaren egungo deslegitimazioa, masa-komunikabideen edo agintari politikoen erabilera murriztaren bidez egiten dena.

Horren guztiaren bidez osatzen den gizarte-testuinguruan, hizkuntzak bigarren mailako papera hartu eta atzera egiten du Gaztelania erabiltzeak abantailak ditu, euskara erabiltzeak zailtasunak dakartza, eta horrek jarrera bat zabaldu zuen euskal gizarteko sektore zabaletan. Horren guztiaren ondorioz, besteak beste, hizkuntza bat errazago baztertu zen; hau da, euskararen familia bidezko transmisioa galdu zen Gainera, hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioari eutsi zieten

Guk bi helburu ditugu. Alde batetik, hizkuntza aukeratzeko (bata ala bestea aukeratzeko) jokabidea aztertu nahi dugu, ikuspegi psikologikotik.

Bestetik, gatazka-egoera horiei aurre egiteko pertsona arteko baliabideak garatzeko esku hartze eredu bat proposatzea da gure helburua, betiere hizkuntza gutxituko hiztunen ikuspegitik.

Norbanakoa mugitzen den ingurunean, bere kolektibitatearen ezaugarri bereizleek (hizkuntza, adibidez) begirune gutxi jasotzen badute sistematikoki, edo baztertu egiten badira, norbanakoa ezaugarri horiek baztertzera behartuta sentitzen da, eta horrek egonezina eragiten dio.

Honela defini dezakegu hizkuntza-mendetasuna: hizkuntza horretan hitz egiten ez duten pertsonen –hipotetikoki edo egiaz– aurrean norberaren hizkuntzaren erabilera legitimoari uko egitea.

familiatan ere, berezko hizkuntzari uko egiteko jarrera ezarri zen, ezezagunen aurrean uko egitea barne (solaskidea euskalduna denentz jakin aurretik), baita sistematikoki gaztelaniara jotzea ere, solaskideak hizkuntza hori erabiltzen duenean. Horrenbestez, honela defini dezakegu hizkuntza-mendetasuna: hizkuntza horretan hitz egiten ez duten pertsonen —hipotetikoki edo egiaz— aurrean norberaren hizkuntzaren erabilera legitimoari uko egitea. Askotan, begirune- edo adeitasun-jarreratzat hartzen da (batez ere jarrera hori praktikara eramaten dutenen aldetik). Eta, noski, ezin da halakotzat hartu, beti zentzu berean gertatzen baita (euskal hiztunak aldatzen du hizkuntza, eta gaztelaniara jo), eta ez bestean, baita bi solaskideek bi hizkuntzak ezagutzen dituzten kasu askotan ere. Soziolinguistek gaztelaniaren elkargune-araua esaten diote horri, eta esan beharra dago “mendetasun” terminoa ez dutela erabiltzen jokabide horren judizio etikoa edo estetikoa egiteko. Deskribapen-balioa duen etiketa da. Beraz, indarrean dauden legeen arabera hizkuntza hori erabiltzea bideragarria den egoeretan norberaren hizkuntzari uko egitea da mendetasunezko jokabidea. Horrenbestez, gaztelaniaz hitz egitea ez da mendetasunezko jokabidea kasu guztietan. Ez da horrela Cuencan edo Segovian gaztelaniaz hitz egiten bada, adibidez. Baina bai Beasainen edo Bilbon gaztelaniaz hitz egiten bada. Gure asmoa ez da, halaber, ezaugarri-balioa ematea. Gauza ez da pertsonak mendekoak eta ez mendekoak direla, baizik eta pertsona batek, egoera batzuetan, men egin dezakeela, eta ez beste batzuetan. Mendeko pertsonak baino areago, mendeko jokabideak daude. Baita mendekoak ez direnak ere.

Aurkako jokabideak ere, hizkuntza-fideltasunak, badu gertatzeko nolabaiteko aukera. Aukera horietako bakoitza gertatzeko probabilitatea ez da %50era iristen eta horrexegatik aztertuko dugu nola areago daitekeen hizkuntza-fideltasuna, pertsonak izan edo beregana ditzaketen berariazko baliabideetan eraginez.

Zalantzarik gabe, hainbat mailatako jardueren bidez egituratu behar da hizkuntza aldatzeko prozesuaren itzulgarritasuna eta, nagusiki, ardurara politikoen eremutik. Egia da, halaber, prozesu hori ulertzeko eta prozesu horretan jarduteko mailarik baxuena hitz egiten duen pertsonaren maila dela. Gobernuen hizkuntza-politikak legeetan islatzen dira, eta hizkuntza-erabileraren ereduak sortu behar dituzte, eraginkorrak izango badira Azkenean, baina, ekintza horiek guztiek, edozein eremutatik abian jarrita ere, norbanakoek iragazkitik igaro behar dute halabeharrez; izan ere, norbanakoek aukeratuko dute hizkuntza bat edo bestea testuinguru jakin batean. Ikuspegi psikologikotik, hizkuntza-aukeraketa esaten zaiona ikasitako jokabidea da; izan ere, giza jokabidea gidatzen duten ikaskuntza-legeek arautzen dute Testuinguru jakin batean hizkuntza bat aukeratzeko ekintza aurretiaz jasotako estimulu batzuen mende dago, eskuragarri dagoen aukeretako bakoitzaren kostua-onura harremana zehazten baitute; halaber, aukeraketaren ondorioen mende dago.

2. HELBURUAK

Jokabide jakin bat azterzea da gure helburua; hizkuntza-mendetasuna, hain zuzen. Eta horretarako, jokabidearen azterketa funtzionalaren eredu bati jarraituko diogu (Segura 1991).

Aurrerago aipatu dugun moduan, gure helburua hizkuntza-aukeraketaren aldagai garrantzitsuak identifikatzea da, aldagai horietako zenbaitetan esku hartzeko eredu proposatu ahal izateko. Eta eredu horren helburua hizkuntza menderatzaileko hiztunekin harremanak izatean egoera horri aurre egiteko trebetasunak geureganatzea du; izan ere, egoera horiek gatazkatsuak izan daitezke, edo ez.

Horren bidez, ekarpen hauek egin nahi ditugu: (a) hizkuntza-mendetasunaren fenomeno ulertzea, eta (b) jendeak euskaraz hitz egiteko aukera areagotzea.

3. HIZKUNTZA-MENDEASUNAREN AZTERKETA FUNTZIONALA

Jokabideak ebaluatzeko eredu ezaugarri nagusietako bat eskura dagoen informazio guztia txertatzeko gaitasuna da, jokabidea azaltzeko eta aurreikusteko tresna sortzeko. Kasu honetan, hizkuntza aukeratzeko jokabidean zer aldagaik esku hartzen duten jakiten saiatuko gara; hau da, zerk daraman pertsona bat hizkuntza bat ala bestea aukeratzera egoera jakin batean.

Azterketa funtzionalak (Segura, Sanchez eta Barbado, 1991) eredu zientifikoaren metodologiari jarraitzen dio, eta ebaluazio-tresna horrek funtsezko gakoak ematen ditu jokabidea nahiz jokabide jakin bat izateko aukera aldatzen duten aldagaien estimulu- eta indartze-funtzioak behatzeko.

Eredu horretan, jokabidea gertaera jakin batzuen arteko funtzio-harremana da; izan ere, gertaera horiek ordena jakin batean gertatu ohi dira (Skinner, 1953); ez da, beraz, kausa-ondorioa eskema deterministaren bidez azal daitekeen fenomeno. Horrenbestez, mendekoa eta independentea aldagaien nozioa –hau da, erantzuna estimuluaren mendekoa eta estimulua organismoarekiko independentea dela dioen ustea– noranzko biko eskema baten bidez ordezkutzen da; estimuluen eta erantzunen arteko harremana jasotzen duen eskemaren bidez, hain zuzen. Es sà Er (Kantor 1978).

Jokabidearen azterketa elkarreragilea da eta jokabidea, hizkuntza bat aukeratzeko ekintza ez ezik, ekintza horren eta ekintza horrek dakartzan gertakizunen arteko lotura ere bada, aurrekariak eta ondorioak barne. Beraz, ingurunea jokabideari datzekion osagaia da, eta ezinbestean aztertu behar da jokabidea ulertu eta aurreikusteko. Jokabidea definitzeko, ingurune-aldagaiak aztertu behar dira, baita organismoaren beraren aldagaiak ere.

Gauza ez da pertsonak mendekoak eta ez mendekoak direla, baizik eta pertsona batek, egoera batzuetan, men egin dezakeela, eta ez beste batzuetan. Mendeko pertsonak baino areago, mendeko jokabideak daude. Baita mendekoak ez direnak ere.

**Jokabidearen azterketa
elkarreragilea da eta
jokabidea, hizkuntza bat
aukeratzeko ekintza ez
ezik, ekintza horren eta
ekintza horrek dakartzan
gertakizunen arteko
lotura ere bada,
aurrekariak eta
ondorioak barne.**

Jarrera-segida honi erreparatzen diogu:

Aurretiazko estimulazioa ← → Jokabidea ← → Ondoriozko estimulazioa

Jokabide-segida horren bidez (modu artifizialean bereizten dugu jokabide-katetik), osagai bakoitzaren berariazko funtzioa zein den jakin dezakegu, baita elkarreragina zein den ere. Agian argigarria izango da gogora ekartzea irudizko jokabide-kate horretako sekuentzia jakin baten ondoriozko estimulazioa aurretiazko estimulazioa izango dela hurrengo mailan; jokabideari koherentzia eta jarraitutasuna ematen dieten mailak lotuko dira horrela

1. taulan, jokabide baten etorkizuneko probabilitatean eragin deza-keten mota guztietako aldagaiak ikus ditzakegu.

1. Taula. Jokabidean eragiten duten aldagai-motak

ALDAGAI DISPOSIZIONALAK		FUNTZIO-ALDAGAIK	
INGURUNE-KOAK	NORBANAKOARENK	ESTIMULU-FUNTZIOA (aurretiazko estimuluak)	ERANTZUN-FUNTZIOA (ondoriozko estimuluak)
Ingurune hurbila	Berariazkoak: - <i>Ikaskuntza-bistoria</i> - <i>Gabezia/Gogobetetzea</i>	Egoera	Indartzaileak
Ingurune zabala	Orokorrak: - <i>Eboluzio-unea</i> - <i>Funtzio-asaldurak</i> - <i>Egitura-asaldurak</i>	Erantzule baldintzatuak:	
Gizarte balioak	- <i>Trebetasunak</i> - <i>Estimulazio-tasa indartzailea</i> - <i>Lebentasunetzko indartze-funtzioa</i>	- <i>Fisiologikoak</i> - <i>Psikologikoak</i>	Zigorak

Horrela, bada, jokabide bat aztertzeko garaian, bi aldagai-mota izan behar dira kontuan: aldagai disposizionalak eta funtzio-aldagaiak, hain zuzen. Aldagai disposizionalak, gainera, azpizatitu egiten dira, jokabidearen bi osagaiak aztertzeko: norbanakoa eta haren ingurunea. Beraz, modu grafikoan azaltzeko, bi sarrerako jokabide-taula dugu, lau ataletan zatitua (1. irudia).

1. Irudia. Aldagai disposizionalak eta funtzio-aldagaiak (Segura et al. 1991, moldatua)

ALDAGAI DISPOSIZIONALAK			
INGURUNEA	<i>Inguruneko baldintza fisikoak eta gizarte-baldintzak</i>	<i>Banakoaren baldintza fisiko-kimikoak eta biografikoak</i>	NORBANAKOA
	<i>Estimulu-funtzioa</i>	<i>Erantzun-funtzioa</i>	
FUNTZIO-ALDAGAIK			

Biztanleriaren zati handi batentzat ohiko bihurtu da gaztelania izatea komunikazio-hizkuntza, bereziki metropoli-barruti handietan, eta horrek nolabaiteko “normaltasun-izaera” ematen dio men egiteko ohiturari; gainera, lagundu egin du oro har euskaraz hitz egiteko jokabideak euskal nazionalista izatearen konnotazioa har dezan.

Aldagai disposizionalak norbanakoaren eta haren inguruaren baldintzak dira, eta elkarreraginaren gertakizunean eragiten dute; izan ere, gertakizun hori izateko aukeran egiten dute, haren alde edo aurka egiten dute.

Beraz, inguruneko aldagai disposizionalak aztertzen ari garen jokabidea izateko aukera alda dezaketen ingurumen-baldintzak dira. Hauek izan daitezke testuinguru jakin batean euskaraz komunikatzeko aukeran eragina izan dezaketen aldagai disposizionalak: hizketakidearen edo taldearen hizkuntza; erreferentzia-taldearen hizkuntza-erabilerak; edo hizkuntza bat ala bestea aukeratuz gero aurreikus daitezkeen ondorioak. Horrenbestez, (a) gure solaskideak gure lagun-taldeko euskal hiztunak badira eta ez badago osagai berririk, (b) ohikoa bada hizkuntza hori erabiltzea eta (c) baldin badakigu ongi ikusita dagoela euskaraz hitz egitea, euskara aukeratzeko probabilitatea gehienekoa izango da.

Berariazko aipamena merezi dute beste aldagai batzuek, hizkuntza batean hitz egiteko aukerari nabarmen eragiten diotenak: gizarte-balioak, hain zuzen. Gizarte-balioak gizarte-talde zabalek partekatutako aurreitazko ideiak (aurreiritziak) dira, eta balio orokortzat hartu ohi dira. Aztertzen ari garen jokabidearen kasuan, oso garrantzitsuak dira testuinguru jakinetan hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko egokitasunari erreferentzia egiten diotenak. Hizkuntzak gutxitze prozesuan barneratuta daudenean, bada aipatu behar den ezaugarri bat, eta hauxe da: erregulariki hizkuntza horretan hitz egiteak konnotazio ideologikoa du eta, bereziki, solaskideak gure hizkuntza hitz egin ez arren hizkuntzari eusten bazaio. Horrek garbi adierazten du, edozein elebitasun-baldintzatatik urrun, dis-

**Hizkuntza batean mintzo
denak hizkuntza hori utzi
beharko du,
sistematikoki, erantzun
gisa ulertezintasuna,
axolagabetasuna, edo
bazterketa
(nabarmenagoa edo
ezkutukoagoa) jasotzen
baditu.**

kriminazio-egoeran bizi garela, eta “herri eta hizkuntza batekoa izateari irmo eusten dietenak *apartheid*era eramaten direla beren lurraldean bertan, beren hizkuntzan hitz egin ahal izateko baimen eskuzabala emanez” (Adell 2003). Biztanleriaren zati handi batentzat ohiko bihurtu da gaztelania izatea komunikazio-hizkuntza, bereziki metropoli-barruti handietan, eta horrek nolabaiteko “normaltasun-izaera” ematen dio men egiteko ohiturari; gainera, lagundu egin du oro har euskaraz hitz egiteko jokatibideak euskal nazionalista izatearen konnotazioa har dezan.

Baina gaztelaniaz hitz egiteko ohitura ez da, ezinbestean, espainiar nazionalismoarekin parekatzen, hizkuntza horrek, nolabait, “hizkuntza neutroaren” izaera hartu duelako, euskal hiztunen arteko men egite orokorrak eragindako “normaltasunari” esker, hain zuzen. Nabarmena da jendeak, oro har, nahiago duela bere ideologia ez adieraztea gizarte-elkarreragin guztietan. Beraz, konnotazio politikoak dituen hizkuntza aukeratzeak kostu bat eransten dio aukera horri.

Aurkako zentzuan, euskarak, komunikazio-hizkuntza moduan, erabilera orokorragoa duen inguruetan, hizkuntza horretan hitz egiteak dakartzan indartzaileen eta zigorren arteko harremana erabat desberdina izan daiteke. Baldintza horietan, konnotazio-balio gutxiago ditu hizkuntza horrek. Dena den, oro har onartutako gizarte-balioek euskarari bigarren mailako hizkuntzaren kategoria (eta papera) ematen diotela esan daiteke; hau da, ez da nahitaezkoa egoera batzuetan edo beste batzuetan. Gaztelania, berriz, lehenengo hizkuntzat hartzen da eta hizkuntza hori erabiltzeak ez du aurreiritzirik sortzen ia ezein egoeratan. Eta horri zabalpen handieneko aurreiritzia dena erantsi behar zaio: “gizabidea”, hain zuzen. Aurreiritzi horren arabera, euskal hiztunek gaztelaniara jo beharko lukete gaztelaniadun baten aurrean, “adeitasunaren” edo “gizabidearen” izenean. Planteamendu hori asimetrikoa da (teorian berdinak diren herri-tarrei eskubide eta betebeharrak desberdinak ezartzen dizkie) eta badu, gainera, kontraesan larri bat: planteamendu horrek baieztatzen du gaztelaniadunek ezin dutela adeitsuak eta gizabidezkoak izan. Baina hori onartezina da, noski, eta edonor, bere ama hizkuntza edozein izanik ere, gai da beste norbaitekin gizabidez jokatzeko. Beraz, hizkuntzaz aldatzeko arrazoiak adeitasuna bada, gaztelaniadunak ere adeitsuak izan daitezke, eta euskarara egokitu hizkuntza hori hitz egiten duen hiztun baten aurrean.

Bestalde, norbanakoaren aldagai disposizionalek hainbat arlori egiten diete erreferentzia; esaterako, hiztunaren hizkuntza-gaitasunari, adierazteko gaitasunari, trebetasun psikologikoei, edo hizkuntza baten erabileraren historia partikularrekin lotutako zenbait datu biografikori (bere ikaskuntza-historia). Hizkuntza bat edo bestea erabiltzeagatik jasotako indartzaileen eta zigorren arteko harremanak norbanakoaren hizkuntza jokabidea baldintzatzen du inolako zalantzarik gabe Azken mendeetan zehar, berariazko zigorren mende egon da euskararen erabilera, eta legeen bidez ere zigortu da, eremu jakinetan euskararen erabilera berariaz debekatzen

zuten legeen bidez; horrek kalte nabarmena egin dio hizkuntzaren gizarte-prestigioari. Eta, bereziki hiri handietan, modu negatiboan eragiten dio prestigio horri agintariek eta pertsonaia publikoek euskara apenas ez erabiltzeak. Horren ondorioz, testuinguru publikoetan edo, besterik gabe, gaztelaniadunen aurrean pertsona batek euskara erabiltzea *gizabide txarre-kotzat* edo *jokabide baztertzaitzat* hartzen da. Gizarte-balio horrek eta beste batzuek (adibidez, hizkuntza komunikatzeko tresna baino ez dela, axola duen bakarra elkar ulertzea dela, euskaraz hitz egitea *txokokeria* edo *kosmopolitanismo falta* modu bat dela) hiztunek beren hizkuntzan hitz egiteko aukera murrizten dute (betiere, beren hizkuntza ez bada gaztelania) Jakina den moduan, baldintzapenaren paradigmari jarraiki, jokabide bat sistematikoki zigortzen bada, jokabide hori izateko aukera murriztu egiten da.

Jokabideari eragiten dieten funtzio-aldagaien artean, estimulu-funtzioa aztertu behar da.

Norbanako batek ez die bere pertzepzio-eremuko estimulu guztiei erantzuten; izan ere, balio esanguratsua dutenei soilik erantzuten die, eta berdin da organismoan bertan edo kanpoan dauden Horrela, bada, lau estimulu-mota bereiz ditzakegu: denbora kontuan izanik, aurretiazko eta ondoriozko estimuluak; jatorria kontuan izanik, berriz, kanpo- eta barne-estimuluak “Aurretiazko estimulazioak kasu bakoitzean berari lotuta dagoen erantzunerako funtzionatzen du, berarekin harremana daukan beste estimulu baten seinale, iragarle edo adierazpen moduan” (Segura, 1991). Jokabide jakin bat eragin dezaketen estimulu baldintzatuak dira.

Bestalde, haxe da ondoriozko estimuluaren funtzioa: antzeko egoeraren batean aurrean izatean, mota bereko elkarreragina izateko aukera murriztea edo areagotzea. Beraz, estimulu horiek ezaugarri indartzaileak hartzen dituzte, subjektuarentzako duten balioa dela-eta (subjektiboa, beraz), saria jasotzen delako (indartzaile positiboa), edo kontrako sentsazioa arintzen delako (indartzaile negatiboa) Horrela, bada, erantzun jakin bat eman eta estimulu bat eskuragarri izateak egoera hori etorkizunean berriz gertatzeko aukera areagotzen du.

Horrenbestez, hizkuntza batean mintzo denak hizkuntza hori utzi beharko du, sistematikoki, erantzun gisa ulertezintasuna, axolagabetasuna, edo bazterketa (nabarmenagoa edo ezkutukoagoa) jasotzen baditu. Gogoan izan behar da euskaraz hitz egiten zuten haurrei eskoletan ahoa xaboiz garbitzen zieten garaia ez dagoela hain urrun, baina egia da orain ohikoagoak direla beste zigor batzuk, zorrotzagoak ez izanagatik, eraginkortasun gutxiagokoak ez direnak.

Bada, ordea, norberaren hizkuntzan hitz egitearen ondorioz jasotako zigorrarekin lotutako beste fenomeno aipagarri bat, hizkuntza-mendetasunaren oinarrian baitago. *Ikasitako babesgabetasunaz* ari gara (Maier, Seligman eta Solomon 1969) eta baldintzatutako erantzun-jokabideekin zerikusia du. Adibide baten bidez azalduko dugu, beste egoera askotan ere aplika daitekeen arren.

***Jakina da gerraostean
eskolara joandako
belaunaldiaren garaian
ohikoa zela ikasleak
zigortzea euskaraz hitz
egitearren. Baina, gainera,
iseka egiten zitzaien
gaztelaniaz hitz egiten
zutenean ere, bai
donuagatik, bai eskolan
soilik entzuten zuten
hizkuntzan hitz egiteko
zailtasunak zituztelako.***

**Gizarte-mailaz igotzeo,
nortasuna ezkutatzea
izan da jokabide
errentagarriena. Eta
nortasuna sistematikoki
ezkutatzea onartzen
denean, oso litekeena da
horrek dakarren
disonantzia kognitiboa
murriztearen alde egitea,
uko eginez. Eta hortxe
oinarri dezakegu,
baldintzetan
oinarritutako ikuspegitik,
norberarengako
gorrotoaren fenomeno
ezaguna (Allport, 1954).**

Jakina da gerraostean eskolara joandako belaunaldiaren garaian ohikoa zela ikasleak zigortzea euskaraz hitz egitearren. Baina, gainera, iseka egiten zitzairen gaztelaniaz hitz egiten zutenean ere, bai donuagatik, bai eskolan soilik entzuten zuten hizkuntzan hitz egiteko zailtasunak zituztelako. Beraz, zigorra jasotzen zuten bai jokabide bategatik, bai besteagatik. Jakina den moduan, animalien jokabide-ereduetan, sistematikoki zigor saihestezinak erabiltzen badira, horrek babesgabetasuna sortzen du, ikasitako babesgabetasuna (*helplessness*) esaten zaiona. Ulergarria da zigor horiei ihes egiteko jende askok eskola uztea, edo bere hizkuntza ez ezik, bere nortasuna ere ezkututzen ikastea.

Urte askotan zehar, baita oraindik ere, gizarte-mailaz igotzeo, nortasuna ezkutatzea izan da jokabide errentagarriena. Eta nortasuna sistematikoki ezkutatzea onartzen denean, oso litekeena da horrek dakarren disonantzia kognitiboa murriztearen alde egitea, uko eginez. Eta hortxe oinarri dezakegu, baldintzetan oinarritutako ikuspegitik, norberarengako gorrotoaren fenomeno ezaguna (Allport, 1954).

Bestalde, zigorrik ez dakarren aukera (gure kasuan, gaztelaniaz hitz egitea) negatiboki indartzen da; izan ere, gutxienez, ez dugu zigorrik jasoko. Horrenbestez, gizarte-egoera jakinetan gaztelaniaz mintzatzen ikasten du jendeak, zigorrik ez jasotzearen.

Indartze positiboari dagokionez, nabarmena da edozein hizkuntza erabiliz indartzaile ugari jaso daitezkeela familia-giroan (elikadura, arreta, etab.). Baina orain ez gara hizkuntzaren familia-erabilera aztertzen ari, komunikazio-hizkuntza moduan zer gizarte-erabilera duen baizik. Ere mu horretan euskara erabiltzeak zenbait onura ekar ditzakeela ere esan behar da. Ama hizkuntza euskara duenarentzat, onura horiek jatorrizko komunitatearekin identifikatzeko arloekin egongo dira osatuta, nagusiki. Kanpotik datorrenak, berriz, beste indartzaile batzuk jaso ditzake; esaterako, zoriondua izatea, lantoki batera sartzeko aukera edo barneratuta sentitzea harrera-komunitatean. Izan ere, nortasunaren adierazle modura, hizkuntza tresnarik demokratikoa eta berdintasunezkoa da (B. Joan 2004). Ezaugarri etnikoek edo jatorri-ezaugarriek (leinuak) identifikatzen dituzten komunitateetan, kanpotik datorrenari ezinezkoa zaio bertan barneratzea. Baina hizkuntza-ezaugarriek identifikatutako komunitatean, egin beharrekoa hizkuntza ikastea da, eta hitz egitea.

Laburbilduz, hizkuntza-mendetasuna jokabide ikasia dela esan dezakegu. Askotan, babesik gabeko esperientzien bidez ezarri da, eta oso arraroa da testuinguru hori zalantzan jartzea. Beraz, indartzaile positiboen (gizarte-onarpena) nahiz negatiboen (gatazka ekiditea) bidez eusten zaio. Jokabide hori duena agian ez da jabetuko hori mendeko-jokabidea dela, eta adetasunaren adierazletzat hartzen du. Hala ere, guretzat mendetasun-jokabidea da (sistematikoki amore ematea eta gure hizkuntza erabiltzeari uko egitea beste hizkuntza bat agertzen den unean), adierazpenezko jokabidea ez hartzea, eta asegabatasuna, autoestimua murriz-

pena eta gizakiari sortzen dion babesgabetasunarekin lotutako beste ondorio batzuk eragin ditzake (Weems eta Silverman, 2006). Horregatik deritzogun euskal hiztunen ongizatea eta gogobetetzea areago ditzakeela beste era bateko jokabidea izateko baliabideez jabetzeak

4. ESKU HARTZEKO EREDU BAT

Katalana komunikazio-hizkuntza izaten laguntzeko estrategia bat garatu genuen 2004an. Estrategia haren helburua hizkuntza-gatazkak konpontzeko gaitasuna areagotzen laguntzea zen, gure ikuspegi akademikoan eta profesionalean oinarrituta; hau da, psikologian oinarrituta. TELP izena eman genion eta helburua hizkuntza-gatazkei aurre egiteko norbanakoaren baliabideak garatzea zen, baita norbanakoaren baliabideak perfektionatzea ere. 2006. urtetik, euskal herritarrek eta erakundeek agertutako interesa zela-eta, baita haien lankidetzari esker ere, lan hura euskal gizartera egokitzeko aukera izan dugu.

TELP ikastaroa beste norbanako batzuentzat hainbat mailatan jokabide-eredu izan daitezkeen euskal hiztunentzat prestatutako ikastaroa da. Jokabide-eredu horien artean buru politikoak eta sozialak, irakasleak, gurasoak eta abar sartzen dira. Hizkuntza-fideltasunaren eredu egokirik ez izatea oztopo larria da, gure ustez, hiztun berriek euskara komunikazio-hizkuntzat har dezaten Beraz, ezinbestekoa deritzogu jendeak hizkuntza-fideltasunari (eta, aldi berean, ongizateari) eusteko baliabideak izatea eta, horri esker, beste batzuentzat eredu izatea

Hau ez da, horrenbestez, euskal hiztunen hizkuntza-kontzientzia edo nazio-kontzientzia areagotzeko ekimena. TELP ikastaroa hizkuntza-kontzientziaren nahikotasunezko maila baduten pertsonentzat prestatu da eta, horrenbestez, hizkuntza gutxitua erabiltzearen oztopoak jasaten dituzten pertsonentzat; horrek, izan ere, gizarte-ongizatea eta ongizate pertsonala kaltetzen ditu.

TELP ikastaroaren deskribapena

Metodo elkarreragilea erabiltzen da saioetan. Hainbat arlotako baliabideak erabiltzen ditugu: Jokabidearen Terapiakoak, Kirol-psikologiakoak, ikuspegi paradoxikokoak edo estrategikokoak eta antzerkikoak, adibidez. Helburua jokabidearen azterketaren hiru mailatan esku hartzea da; fisiologikoan, kognitiboan eta motorean, hain zuzen. Izan ere, gatazka-egoerei aurre egiteak sortzen duen gastua murriztea da asmoa, erabilera horrek dakarren gogobetetzea ahalik gehiena areagotuz. 12-20 laguneko taldeentzat da ikastaroa, eta 10 orduko iraupena du.

Ikastaroaren hasieran, hurbilpen teorikoa egiten da, egoera jakin batean norbanakoak hizkuntza nola aukeratzen duen ulertzeko ezagutza teorikoen berri emateko. Aukeratzeko prozesua eskura dauden aukeren

*Psikologian oinarrituta.
TELP izena eman genion
eta helburua hizkuntza-
gatazkei aurre egiteko
norbanakoaren
baliabideak garatzea zen,
baita norbanakoaren
baliabideak
perfektionatzea ere.*

Proposatutako esku hartzea jokabidearen azterketaren eredu zientifikoetan oinarritzen da, jokabideak nola sortu diren eta jokabide horiei zergatik eusten zaien ulertzeko. Helburua “gizarte-elkarreraginetan euskaraz hitz egiteko” jokabidea izateko aukerak areagotzea denez, hizkuntza horri gizarte-erabilera emanez ongizate eta gogobetetze handiago izateko baliabideak ikas ditzakegu.

arteko probabilitatea aldatzen duten eraginen mende dago, noski. Jokabidearen azterketaren ikuspegitik, aukera bakoitzetik eratorritako ondorio positiboek eta negatiboek norbanakoaren jokabidea bideratuko dute etorkizun hurbilean. Beraz, euskaraz hitz eginez gero, aukera handiagoa dagoenez hizkuntza-gatazkak izateko (abertsiozkoak izan ohi dira subjektuarentzat), hizkuntza hori aukeratzeko probabilitatea murriztu egiten da segida hau errepikatzeo aukerak areagotzean: euskara erabiltzea / gatazka-egoera / ondoeza. Gure ustez, jokabide hori erregulatzen duten mekanismoak ulertuz gero, errazago landu daitezke euskararen aldeko gertaeren aukera aldatzeko jokabide-estrategiak.

Horrenbestez, arazo horri psikologiaren ikuspegitik helduz gero, norbanakoaren erantzunari erreparatu behar zaio Beste azterketa-maila batzuk bazterten ez ditugun arren (gizartea, legeak, politika, etab.), gure prestakuntzak norbanakoaren jokabidean esku hartzeko gaitzen gaitu. Proposatutako esku hartzea jokabidearen azterketaren eredu zientifikoe-tan oinarritzen da, jokabideak nola sortu diren eta jokabide horiei zergatik eusten zaien ulertzeko. Helburua “gizarte-elkarreraginetan euskaraz hitz egiteko” jokabidea izateko aukerak areagotzea denez, hizkuntza horri gizarte-erabilera emanez ongizate eta gogobetetze handiago izateko baliabideak ikas ditzakegu.

Jarraian, hainbat hizkuntza-gatazka eta hizkuntza-elkarreragin aztertuko dira, hainbat modutan aurre egin dakiekeela erakusteko, zenbait ezaugarri daudenean; adibidez, solaskideen arteko harremana, elkarreraginaren ondorio aurreikusgarriak edo sortutako emozio-inplikazioa.

Jokabidea baldintzatzen duten zenbait elementuk testuinguruaren faktorearekin dute zerikusia, aurrerago esan dugun moduan. Hauxe da egungo egoera: euskal hiztun gehienek hizkuntza-mendetasuna praktikatzen dute, gizarte-egoera askotan euskara baztertuz. Egoera horietako batzuetan euskara erabiltzeak kontrako zuzeneko ondorioak izan ditzake hiztunengan (adibidez, lan bat galtzea edo ez lortzea). Kasu horietan, hizkuntza-aukeraketa erabilera-irizpideen arabera izango dela uler dezakegu, sinplifikatuz. Baina beste egoera batzuk alderantzizkoak dira hierarkikoki, eta euskal hiztuna da mendekoaren gainetik dagoena. Teknikoki, bi egoera horietan euskara aukeratzeko probabilitatea erabat desberdina izango litzateke. Eta, noski, behatze hutsak esaten digu ez dagoela ondo gertatzen dena. Euskal hiztunek mendeko solaskideekin nahiz goragoko mailako solaskideekin praktikatzen dute mendetasuna.

Egoerak deskribatzeak eta sailkatzeak egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako aukeraketa egiteko eta erantzunak emateko (jokabide) estrategia berriak geureganatzen laguntzen du.

Eskura ditugun baliabideak identifikatzeko, horiek garatzeko eta berriak ikasteko atala ere badu ikastaroak. Hori dramatizazioen eta talde-laneko metodoen bidez nahiz bikoteka egiten da eta ahozko hizkuntza-ren eta ahozkoa ez den hizkuntza-ren arloei buruzko oinarritzko presta-

kuntza ere txertatzen da. Praktika eta ariketa horien guztien bidez, bertaraturatutakoan adierazpen-gaitasuna hobetzea da gure helburua, komunikazio bat ezartzeko garaian eraginkorragoak izan (eta senti) daitezten.

Gure ustez, zenbat eta baliabide eraginkor gehiago izan, orduan eta askatasun handiagoa izango dute egiazko hizkuntza-aukeraketa egiteko, beren solaskideen aurrean mendetasuna sistematikoki erabiltzera behartuta sentitu gabe. Baliabideak dituzten pertsonen baliabide horiek erabiltzea edo ez erabiltzea aukera dezakete, noski; baina baliabideak ez dituztenek ezin dute aukeratu. Erabakia, azken finean, hiztunarena da. ■

BIBLIOGRAFIA

- ADELL, M.A.: Autoestima i identitat: enfocament psicològic. In Gibert, Q.; Murgades, J.; Adell, M.A. eta Joan, B.: Autoestima i Països Catalans. La Busca edicions, 2003.
- ALEXANDRE, V.: Catalanitats. In T. Strubell (koord.): L'autoestima dels catalans. Pòrtic, 2003
- JOAN, B.: Normalitat lingüística i llibertat nacional. Contextos 3 i 4, 2002
- KANTOR, J.R.: Psicologia interconductual. Trillas, Mexiko, 1978
- MAIER, S.F.; SELIGMAN, M.E.P. eta SOLOMON, R.: Pavlovian fear conditioning and learned helplessness. In B. Campbell eta R. Church (arg.): Punishment, Appleton-Century-Crofts, New York, 1969
- MARÍ, I.: Plurilingüisme europeu i llengua catalana. Biblioteca Lingüística Catalana, 1996
- SEGURA, M., SANCHEZ, P., BARBADO, P.: Análisis funcional de la conducta. Universidad de Granada, 1991
- SKINNER, B.F.: Science and Human Behavior. MacMillan, New York, 1953
- ALLPORT, G. The Nature of Prejudice. Addison-Wesley Pub. Co (1954)
- WEEMS CF, SILVERMAN WK. An integrative model of control: implications for understanding emotion regulation and dysregulation in childhood anxiety. *J Affect Disord.* 2006 Apr; 91(2-3):113-24.

Zenbat eta baliabide eraginkor gehiago izan, orduan eta askatasun handiagoa izango dute egiazko hizkuntza-aukeraketa egiteko, beren solaskideen aurrean mendetasuna sistematikoki erabiltzera behartuta sentitu gabe. Baliabideak dituzten pertsonen baliabide horiek erabiltzea edo ez erabiltzea aukera dezakete, noski; baina baliabideak ez dituztenek ezin dute aukeratu. Erabakia, azken finean, hiztunarena da.